

*Gorbeiako
Parke Naturaleko errotarri
harrobiak*

*Canteras moleras
en el Parque Natural
de Gorbeia*

Javi Castro · Esteban Etxebarria ·
Iñaki García Uribe · Luiso López



Gorbeia *Parke Naturaleko* *errotarri harrobiak*

Canteras moleras *en el Parque Natural* *de Gorbeia*

Egileak / Autores:
Javi Castro · Esteban Etxebarria ·
Iñaki García Uribe · Luiso López

Errotari hareharrien esparru geologikoan ataleko kolaboratzailea /
Colaboración en el apartado de las areniscas moleras en el marco geológico:

Iñaki García Pascual

araba  álava
foru aldundia diputación foral

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

 **aranzadi**
zientzia elkarte

 **ERROTARRI**
Proiektua

GORBEIA

PARKE NATURALA
PARQUE NATURAL


NATURA 2000

Gure emazteei: Karmele, Olga, Estibaliz eta Blanca.

Dedicado a nuestras esposas, Karmele, Olga, Estibaliz y Blanca.

© **Javier Castro, Esteban Etxebarria, Iñaki García Uribe, Luiso López, 2021**

© Argitaraldi honena / De esta edición: Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava

Argitaratzailea / Edita: Arabako Foru Aldundia - AFA /Diputación Foral de Álava - DFA

Argazkiak / Fotografías: egileak eta laguntzaileak / autores y colaboradores

Mapen jatorria / Fuente de mapas: egileak / autores

Lege-gordailua / Depósito Legal: G-00182-2022

ISBN: 978-84-7821-985-8

Diseinua, maketazioa eta azala / Diseño, maquetación y portada: Amaia Castro

Itzulpena / Traducción: Euskera Zerbitzua - AFA / Servicio de Euskera - DFA

Ediziorako aholkularitza / Asesoramiento editorial: Natura Ondarea - AFA / Patrimonio Natural - DFA

Inprimategia / Imprenta: Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava

ERROTARRI logotipoaren diseinua / Diseño logotipo ERROTARRI: Jesus Azkue

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, erabilera komertzialerako bada, titularren edo argitaratzailearen baimen idatzia behar da nahitaez.

Erabilera ez komertzialetarako, lana osorik zein zatika zabaldu eta erreproduzitu ahal izango da, beti ere, jatorria eta egileza aipatuta.

Cualquier forma de reproducción, distribución, comunicación pública o transformación de esta obra para uso comercial solo puede ser realizada con la autorización por escrito de los autores o del editor.

Para otros usos no comerciales, se autoriza la difusión y reproducción total o parcial de esta obra siempre que se cite la procedencia y autoría.

Aurkibidea

Índice

Parke naturaleko agintaritzaren/ Arabako Foru Aldundiaren aurkezpena Presentación autoridad Parque Natural/ Diputación Foral de Álava	9
Egileen aurkezpena Presentación de los autores	11
Hitzaurrea Prólogo	22
Sarrera Introducción	24
Errotarriak egiteko hareharriak gorbeia- parke naturalaren esparru geologikoan Las areniscas moleras en el marco geológico del Parque Natural de Gorbeia	31
Galdutako lanbidearen bila: errotarri hargina En busca del oficio extinguido: cantero molero	53
Hareharrien harrobiak, bailabide bikaina Las canteras de roca arenisca como recurso	59
Harginak Los canteros	72
Ikerketa eta emaitzak La investigación y los resultados	80
Esker onak Agradecimientos	188
Bibliografia Bibliografía	189
Mapa kontrazalean kokatua. Se incluye mapa en la contraportada.	

Parke naturaleko agintaritzaren/Arabako Foru Aldundiaren aurkezpena Presentación autoridad Parque natural/Diputación Foral de Álava

Parke natural batean kontserbatu beharreko elementu multzoaren barruan dago kultura ondarea. Egiteko hori jasota dago gure gune babestuak halakotzat deklaratzeko oinarria den biodibersitatearen kontserbaziorako araudian, eta esanahi berezia hartzen du Gorbeia bezalako inguruneetan: benetako kultura paisaia, non naturak eta gizakiak egitura bereizina osatzen baitute.

Memoria historikoa dugunetik erabiliak izan diren gailurreko larreetatik ikazkintzarako modelatutako pago motzetaraino, erabilera ugari izan da Gorbeian. Pixkanaka ezagutuz goaz lanbideak, ohiturak eta jarduera ekonomikoak, zeinek are gehiago aberasten baitute Euskadiko mendi tradizio handieneko lekue-tako baten eta parke naturalik maiteenaren izaera. Jakin badakigu erlategiak, gaztainadiak, mintegiak, kare harrobiak, iturriak, zubiak eta otso zuloak daudela. Ongi ezagutzen ditugu ganaduaren ibilbidea, zuraren erabilerak eta burdinola eta errotetarako uraren indarraren erabilera.

Jende, istorio eta soinu imaginario horri altxor kutxa handi horren beste pieza baten ezagutzza gehitu zaio: errotarri harrobiak.

El patrimonio cultural forma parte del conjunto de elementos a conservar en un Parque Natural. Este cometido, que está recogido en la normativa de conservación de la Biodiversidad sobre la que se han declarado nuestros espacios protegidos, cobra un sentido especial en entornos como Gorbeia, un verdadero paisaje cultural, donde naturaleza y ser humano forman un entramado inseparable.

Desde los pastizales de la cumbre, utilizados desde que tenemos memoria histórica, hasta los hayedos trasmochos modelados para el carboneo, el trasiego de usos ha sido intenso en Gorbeia. Poco a poco vamos conociendo profesiones, costumbres y actividades económicas, que enriquecen aún más el carácter de uno de los lugares con mayor tradición montañera de Euskadi y el Parque Natural más entrañable. Tenemos constancia de abejas, castañeras, viveros, caleros, fuentes, puentes y loberas. Conocemos bien el recorrido ganadero, los usos de la madera y la utilización de la fuerza del agua para ferrerías y molinos.

A este imaginario de gentes, historias y sonidos se ha ido uniendo el conocimiento de una nueva pieza de este gran cofre de tesoros: las canteras moleras.

Gorbeia mendigune berezia modelatzen duten harri horietan sekulako errotari iturriak izan ziren, eta argitalpen honek dakar-kigun azterlanak berresten du eremu hori Europako mota horretako hargintza multzorik garrantzitsuenetako bat dela.

Orain arte aurkitu diren ia 150 harrobiak jaso dira argitalpen honetan. 2013. urtetik hona, egileak Gorbeia mendia eta haranetan ibili dira lurraldean sakabanatutako etnografia pieza paregabeen ahaztutako ezagutzaren bila. Gorbeia historian falta diren hitzak aurkituz doanaren grinarekin eta errespetuarekin egindako lana da. Ahalegin horri esker gero eta hobeto ezagutzen dugun historia zoragarria da, Arabak eta Bizkaiak partekatzen dugun Gorbeia Parke Naturalaren balio kultural eta historikoa handitzen laguntzen duena.

Las mismas rocas que modelan el inconfundible macizo de Gorbeia fueron una fuente vastísima de muelas o piedras moleras, y el estudio que nos muestra esta publicación confirma la zona, como uno de los conjuntos de este tipo de cantería más importantes de Europa.

En esta publicación se recogen las casi 150 canteras encontradas hasta la fecha. Desde 2013, sus autores han recorrido los valles y montes del Gorbeia en busca del conocimiento olvidado, de piezas únicas de etnografía desperdigadas por el territorio. Se trata de un trabajo realizado con la pasión y el respeto del que va encontrando las palabras que faltan en la historia de Gorbeia. Una historia fascinante que gracias a este esfuerzo vamos conociendo mejor y que contribuye al incremento del valor cultural e histórico del Parque Natural de Gorbeia, que compartimos Araba y Bizkaia.

.....

José Antonio Galera Carrillo

**Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua,
Arabako Foru Aldundia**

**Diputado foral de Medio Ambiente y Urbanismo,
Diputación Foral de Álava**

Egileen aurkezpena

Presentación de los autores

Galdutako lanbide bat katalogatu eta zabaltzea

Catalogar y difundir un oficio olvidado

2013ko azaroan, bisita gidatu bat egin nuen Gorbeia Arrolamendiko Mintegizarra deritzon leku ezezagunera, ia-ia Bizkaiaren eta Arabaren arteko murraren. Neguko eguna zen, lainotsu eta euritsua. Juanjo Hidalgo arkeologo eta historialariak egin zigun bisita. Egun horretan eta toki horretan, Javi Castro ezagutu nuen. Biok ere artikulu bana idatzi genuen AUNIA aldizkari ospetsu eta dagoeneko desagertuan, neuk Euskal National Geographic deitzen nion horretan.

Javi, artean, errotari harrobiak katalogatzen hasita zegoen Gorbeia eta haren laguntzaile izateko eskaintza egin nion. Une horretan bertan, konturatu nintzen kosta egin zitzaizkidan bitartekariak aurkitzea, leku horretakoa ez delako eta Gorbeia osatzen duten udalerrietako mendi eta etnografia sarea (azken batean, elkarteen sarea) ezagutzen ez zuelako.

Hala bada, egiten dudana gauza orotan bezala, ilusioz lagundu nion, harekin joan nintzen, ikasi egin nuen, gozatu egin nuen, informatzaileak bilatu nituen, ikerketan zaila nintzen eta, batez ere (horixe izan da nire arloa), errotari harrobiak zer diren ezagutzera eman nion gizaritari.

Ia inork ez du jakin dagoeneko galduta dagoen eta oso arrasto gutxi utzi duen lanbide honen berririk. Arrastoak aurkitzen zaila izan da, baina Javi Castro gogotik ahalegindu da errotariak saldu eta garraiatu zirela erakusten zuten datu zaharrak aurkitzen.

Gorbeian zer egiten ari ginen ikasi (horretan jarraitzen dut) eta lan hori zertan zetzan azaltzeko seguru sentitu nintzenean, telebistako platoetan egon naiz, hamaika irratsaio egin

Allá por noviembre de 2013 fui a una visita guiada al desconocido lugar de Arrolamendiko Mintegizarra, en Gorbeia, casi en la raya entre Bizkaia y Álava. Era un día invernal, con mucha niebla y lluvia. La visita la realizó Juanjo Hidalgo, arqueólogo e historiador. Ese día y en ese lugar conocí a Javi Castro. Ambos habíamos escrito un artículo en la prestigiosa y desaparecida revista AUNIA, a la que yo tildaba como la National Geographic Vasca.

Javi había empezado a catalogar canteras moleras en Gorbeia y me ofreció a ser su ayudante colaborador. Me di cuenta en ese mismo instante que le costaba llegar a contactos, al ser de fuera del lugar y desconocer el entramado montañoso y etnográfico (asociativo) de los municipios que configuramos Gorbeia.

Pues nada, con la ilusión que me caracteriza en lo que hago, le ayudé, acompañé, aprendí, disfruté, colaboré y busqué informantes y me enganché al estudio y, sobre todo (ese ha sido mi apartado), comuniqué a la sociedad qué es esto de las canteras moleras.

Prácticamente nadie sabía de la existencia de este oficio desaparecido y con poco rastro dejado. Rastro difícil de encontrar, pero Javi Castro se afanaba en localizar diversos datos antiguos que mostraban la compra venta, acarreo y traslado de muelas o piedras de molino.

Una vez que aprendí (sigo en ello) y que me sentí seguro de cómo explicar cuál era el trabajo que estábamos haciendo en Gorbeia, visité platós de televisión, hice decenas de programas de radio en otras tantas emisoras (los sigo

ditut beste hainbeste irratitan (oraindik ere astero egiten dut eta errotarri harrobiei buruz hitz egiten jarraitzen dut), artikulak argitaratu eta aipamenak egin ditut egunkari eta aldizkarietan, Javi zenbait erredaktorekin harremanetan jarri dut, albistearen berri eman dezaten, eta gaiari buruz Euskal Herrian eman den lehen hitzaldia antolatu dut, nire herrian, Orozkon. Alabaina, bada zerbaite berebiziko poza eman didana: Facebook sarean sortu dudana orrialdean egindako komunikazio birtuala (nire izena eta bi abizenak idatzita aurki daiteke). Bertan, dozenaka post argitaratu ditut Javi Castrok landa laneko bisita guztietan idazten dituen fitxa etnografikoak jasota. Zabalakude lan horri esker, laguntzaile gehiago gehiago aurkitu ditugu, eta nik egin nuen bezala, dagoeneko desagerturik eta erabat ahazturik dagoen lanbide zahar honen nondik norakoak ikasi dituzte.

Gorbeian egin ohi ditugun azterketa etnografikoen lanaren katalogazioa bera gainditzen dute. Lehenengoz eta bat, elkartu egiten gara, eta gai honetaz gehiago jakin nahi duten mendizaleak irteeretara gonbidatzen ditugu. Urteak daramatzate guk argitaratutakoak irakurtzen eta milaka argazki ikusten, baina irteeretak datorren inork ez du aurretiaz imajinatzen landa lanari darion xarma. Ondoren, mendizaleak arruntean joaten ez diren lekuetara joaten gara, arauzko ibilbide eta gailurretatik kanpo, ohiko bideetatik at. Artzaintzako saroiak eta hargin errotarietako aterpeak edo etxolak eraiki zituzteneko tokiak ezagutzeko ere gauza ederria da. Toponimia eta leku-izenak ere beste jakintza iturri bat dira guretzat eta gure jarraitzaileentzat, ahots horiek azalera ekartzen ditugulako, horietako asko ezagunak baitira, lekuen mapak egin dituztenentzat izan ezik.

Nire iritziz, honako liburu hau errotarri harrobien eta Gorbeiko parke naturalaren inguruko ezagutzari eman diogun bultzadaren aldeko omenaldia da; izan ere, aurten 25 urte bete dituen parke natural hau dugu lanbide zahar horren arrasto gehien gordetzen dituen gune geografikoa munduan. Beraz, Gorbeia hobeto ezagutzen ikasi dut. Eta oraindik ere ikasiko.

haciendo semanalmente y sigo hablando de canteras moleras), publiqué sueltos y citas en periódicos y revistas, puse en contacto a Javi con redactores de interés para que trasladasen la noticia, organicé la primera conferencia en suelo vasco sobre la materia, en mi pueblo, Orozko. Pero si de algo estoy contento, es de la comunicación virtual en mi página de Facebook (atiende a mi nombre y dos apellidos). En ella he puesto decenas y decenas de post con las fichas etnográficas que Javi Castro escribe en cada visita de campo o exploración que realizamos, y esa divulgación nos ha llevado a una mayor captación de colaboradores que han aprendido, como yo lo hice, este oficio desaparecido y olvidado por completo.

Las exploraciones etnográficas que llevamos a cabo en Gorbeia exceden de la propia catalogación del trabajo en sí. Primeramente nos juntamos, invitando a las salidas a montañeros deseosos de bucear en esta materia. Ya llevan leyéndonos años y viendo miles de fotos que vamos colgando pero, ninguno de los que viene se imagina la magia que contagia este trabajo de campo. Después llegamos a lugares donde, por norma, no van los montañeros, al carecer de rutas formales, cumbres (en general), vamos fuera del tránsito. Conocer las majadas pastoriles y los lugares donde los canteros moleros construyeron sus chabolas es también algo precioso. La toponimia, los nombres de lugar, son otra fuente de conocimiento para nosotros y para quienes nos siguen, dado que afloramos esas voces, muchas de ellas desconocidas, excepto por quienes han hecho mapas de los lugares.

En mi opinión este libro es un homenaje a nuestro impulso en el conocimiento de las canteras moleras y al Parque Natural de Gorbeia, que este año cumple 25 años, dado que es el espacio geográfico del mundo, donde más restos de este trabajo quedaron en el lugar de origen del mismo. Así que he aprendido a conocer mejor Gorbeia. Y lo que me queda.

.....

Iñaki García Uribe (Bilbo, 1965)
Aranzadi Z.E.

Elkarretaratze askoren txatalak, galdutako lanbide baten omenez Retazos de un montón de encuentros para homenajear a un oficio perdido

«Zeuk erakutsi niri errotarriak daudeneko leku ezagun guztiak». Horixe da Javi Castrok zerbilen esaldi astun eta gogaikarria arlo honetan dudana ezagutzari zukua ateratzeko. 2017ko martxoaren 1a zen. Badirudi atzo bertan izan zela, errotarri harrobiei buruzko lehen ikerketa eguna, Oketaren hegoaldean.

- «Begira, Javi, hemen Gerra Zibileko bonba batek eragindako zuloa dago».
- «Esteban, hauxe ez da bonba baten arrastoa, hauxe errotarri bat ateratzeko zuloa da».
- «Javi, beti inguratu ditut harri pilaketa horiek, leku ederra da orkatila bihurtzeko».
- «Esteban, leku hori berezia da, bakarra, jende askok oso gogor lan egin dueneko lekua; inguru hau guztiz ezezaguna da. Zigoitiako historia oraindik era ezagutu barik eta idatzi barik dago».

Harrobien ikertzaile lanetan estreinatu nintzen lehen egun horretan, ARRAKASTA ITZELA, HARRIGARRIA! Gure ahaleginen emaitzaz, 26 errotarri aurkitu eta geolocalizatu genituen, eta ozta-ozta bi urte igaro ondoren, munta eta garrantzi handiko liburu honetan parte hartzen «enbolikatu» naute.

Arestian aipatu dudana bezala, jakingo duzue Esteban naizela, Abadelaueta Etnografia Elkarteko kidea. Elkartea 2008an hasi zen jardunean. Gure jardunbidearen helburua Zigoitiko ondare historikoa eta kulturala ikertzea, zabaltzea, babestea eta jagotea da, gure herrien historiaren lekuak, kontakizunak, ohiturak, erritoak eta aztarnak aztertzea eta gure sustraiei balioa emateko beharra sustatzeko oinarriko baldintzari heldurik, gure ondarearen ezagutza eta berreskurapena bultzatuz.

Lan honi ekin aurretik, arrasto gutxi geneukan esku artean: Isidro Saenz de Urturiren aipa-

«Tú enseñame todos los sitios que sabes que hay piedra». Esta era la frase machacona e insistente con la que Javi Castro trataba de exprimirme en estos ámbitos. Estábamos a 1 de marzo de 2017. Apenas parece que fue ayer, nuestro primer día de investigación de canteras de piedras moleras, al sur de Oketa.

- «Javi, mira aquí hay un agujero de bombazo de la Guerra Civil».
- «Esteban, esto no es un bombazo, esto es una extracción para una piedra molera».
- «Javi, estas montoneras de piedras siempre las he rodeado, esto es un magnífico sitio para romperme un tobillo».
- «Esteban, esto es un paraje singular, único, donde ha trabajado mucha gente y muy duro, esto es completamente desconocido. La historia de Zigoitia está aún sin descubrir ni escribir».

En este primer día de mi estreno como investigador de canteras, ¡GRAN ÉXITO, SORPRENDENTE! Nuestros esfuerzos dieron como resultado, 26 piedras encontradas y geolocalizadas; y tras escasos dos años me encuentro en la «embolada» de ser parte activa en un libro de esta índole y relevancia.

Como he mencionado anteriormente habréis descubierto que soy Esteban, miembro de la Asociación Etnográfica Abadelaueta, ya en funcionamiento desde el año 2008. Nuestra filosofía y objetivo del buen hacer consiste en investigar, divulgar, proteger y conservar el patrimonio histórico y cultural de Zigoitia; desde el estudio de lugares, relatos, costumbres, ritos, huellas... de la historia de nuestros pueblos y bajo la premisa básica de promover la necesidad de valorar nuestras raíces, impulsando el conocimiento y recuperación de nuestro patrimonio.

men urriak eta Muruako Sáez de Viteritarren lekukotasunak eta oroipenak, azkenek Antonio aitona gogoratzen zutela azken errotarri harginetako gisa, eta mendian antzemandako errotarri guxti batzuk, ez besterik. Bagenekien, halaber, ardatz horizontaleko errotak zeudela, eihera modukoak, Zubialde errearen goi ibarrean, Carlos Martinek 2003an argitaratutako ikerketa lan bikainari esker.

Javi Castro izeneko gipuzkoar bat etorri zen gurera, eta Abadelaueta elkarteari nahiz beste kolaboratzaile batzuei beharrezko jarraibideak emanda, galdutako lanbide honen lagin izugarria argitara ematea lortu du, Gorbeia munduko eremurik garrantzitsuena bihurtuta, batetik, lanbide zahar horri lotutako aztarna ugariak direla eta, bestetik, aurkitutako errotarri harrobien kopuru handia dela.

Zigoitiko etnografia elkarte honek, aurkituzten zabalkundea egin nahi duenez, ondoko jarduerak egin ditu:

- «Akelarrea» aldizkariaren ale berezia argitaratu du Zigoitian izan ziren errotarri harrobi buruz, gai horretaz gehiago jakin nahi dutenek eskuratzeko eta hainbat erakundetara helarazteko.
- Gutxi gorabehera, sei kilometro luze den «Errotarriak» izeneko ibilbidea balizatu du, harrobi batzuk bisitatu ahal izateko, QR kodeak baliatuz. Ibilbidean zehar, hainbat argibide eskaintzen dira ondoko alderdiei buruz: formazio geologikoa, harginaren lanbidea, errotarrien bilakaera, harriak ateratzeko eremuak, errotarriak lantzeko lan nekeza... Txatal horiei guztiei esker, lanbide ezezagun honetaz zerbait gehiago jakiteko aukera izango du.
- Ibilbide horretatik kanpoko harrobiak bisitatzeko aukera ematen du, urteko txangoen programa dela bide (hilabete guztietako hirugarren larunbatean).
- Artikuluak argitaratu ditu beste aldizkari jakin garri batzuetan: Herrian, Hamazazpi ...

Amaitzeko, zorionak emateko aukera aprobeztatu nahi du; bai dagoeneko ez daudenei, harrobien arrastoa utzi zuten gure nagusiei,

Antes de iniciarnos en este proceso, contábamos sólo con las escasas referencias de Isidro Saenz de Urturi, los testimonios y recuerdos de la familia Sáez de Viteri de Murua, al recordar al abuelo Antonio como uno de los últimos canteros moleros, y un escaso número de piedras conocidas por el monte. Sabíamos también de la existencia de molinos de eje horizontal, tipo aceñas, situados en la cabecera del arroyo Zubialde, gracias al excelente trabajo de investigación que hizo Carlos Martín ya publicado en 2003.

Fue necesaria la llegada de un guipuzcoano, Javi Castro, que aportando las directrices necesarias a Abadelaueta y a otros colaboradores, hemos conseguido sacar a la luz una inmensa muestra de este oficio perdido; convirtiendo a Gorbeia en el espacio más relevante del mundo en cuanto a la cantidad ingente de restos de esta labor y por el gran número de canteras moleras encontradas.

Esta asociación etnográfica zigoitiana, en su deseo de difundir el conocimiento de dichos hallazgos ha llevado a cabo las siguientes actividades:

- La edición de una revista «Akelarrea» extraordinaria sobre las Canteras Moleras de Zigoitia, para todos los interesados en el tema y distribuida a diversas entidades.
- El balizamiento de una ruta «Errotarriak» de aproximadamente seis kilómetros, que nos permite visitar varias canteras con sus propios códigos QR, donde a lo largo de ella se ofrece información sobre la formación geológica, el oficio de cantero, la evolución de las muelas, las zonas de extracción, el trabajoso laboreo de una muela... pequeños rastros que nos acercan en cierta manera a este oficio tan desconocido.
- La visita a otras canteras ajenas a la mencionada ruta con el programa de excursiones anuales que se organizan el tercer sábado de cada mes.
- La publicación de varios artículos en otras revistas de interés: Herrian, Hamazazpi...

Para terminar aprovechar la ocasión para felicitarnos; tanto a los que ya no están, nuestros mayores, que dejaron su huella en la cantera,

bai iraganeko lan hori guztiari, azken batean, gure historiari, balioa ematen ahalegintzen garen guztioi. Zinez espero dugu elkarrekin gozatuz eta argitalpen berri honi esker hasiko dugun bidaian hazia eriteko gai izatea datozen belaunaldiei begira.

como a todos los que apostamos por tratar de poner todo este trabajo en valor, en definitiva nuestra historia. Esperemos que a través del disfrute conjunto, y el viaje que comenzamos con esta nueva publicación seamos capaces de poner una semilla de cara a las próximas generaciones.

.....

**Esteban Etxebarria Lekue (Zigoitiko herrigune sakabanatuak /
Diseminados de Zigoitia, 1948)
Abadelaueta**

Ibili eta errotarriak bilatzeko ilusioa La ilusión de andar y buscar piedras de molino

Landa eremuan ibili naiz txikitatik, abereekin, artzainekin, ehiztariekin eta abarrekin. Azken batean, egunero ikasten zenuen zerbait, animalia bati buruz, belar bati buruz edo inguruen horretako alderdiren bat behatuta eskuratzeko zenuen argibideren bat.

Mendira joaten naizenean, aurrean dudak ingurune naturala irakurtzen eta prozesatzen saiatzen naiz; batzuetan, erraz irakurtzen da, baina, beste batzuetan, kosta egiten da ikur horiek interpretatzea. Tamalgaria da gizakiok bizirik irauteko modua eman digun ingurune naturalaren irakurketari buruzko ezagutza baztertua eta gutxietsita egotea; kontsumo gizarrean oinarritzen denari, berriz, gehiegizko balioa ematen diogun, suntsituko gaituela jakin arren.

Urteak aurrera doaz, eta inguratzen zaituen ingurune natural horrekiko interesa duzunean, ezagutza landu eta elikatu egiten duzu. Ezagutza hori, ordea, ez da zabala, ezta urria ere, baina zurea da, eta ez doakoa. Beste gauza bat da nori helarazi eta nola helarazi nahi diozun edo, bestela, aldean hilibira eraman nahi duzun.

Desde pequeño me he movido en el medio rural, con ganado, pastores, cazadores... En fin todos los días aprendías algo, sino era con un animal era con una hierba o era la información que obtenías de la observación sobre un agente del medio.

Cuando salgo al monte, intento leer e intento procesar toda esa información que tengo delante, a veces se lee fácil y otras veces cuesta interpretar esos signos. Es una pena que el conocimiento de la lectura del medio natural que nos ha hecho vivir a los humanos 2 millones de años esté ignorada y devaluada y la que se basa en la de moverse en la sociedad de consumo esté sobrevalorada, sabiendo que nos va a destruir.

Los años van pasando y cuando sigues interesado en ese medio natural que te rodea, el conocimiento lo cultivas y lo alimentas. Conocimiento que no es mucho ni es poco, pero es el tuyo y no gratuito. Otra cosa será a quién y cómo se lo quieras transmitir o si lo quieres llevar contigo a la tumba.

Laneko bizitzaren inguruabarrak direla eta, giro «kulturaletan» ibili naiz, eta hainbat kolaborazio egin ditut aldizkari eta liburuetan, askotariko gaien inguruan, horietako bat Altube-Baranbio inguruko erroten gaia izan dela (Labayru, 1990).

Aztarna elkartearen duela 30 bat urte, Felix Murgarekin batera, argin eta errotarri buruz zerbait egiten ibili ginen, eta gero Aztarnan argitaratu zen oso modu apalean.

Urte hauetan guztietan, errotarriak, kobazuloak, tumuluak, lubakiak eta abar erakutsi dizkiet Gorbeian barrena hainbat pertsona interesduni eta, beraz, ez ninduen ustekabeen harripatu duela 4 urte inguru Javi Castrok (Aranzadi) harrobiak edo errotarrien aztarnak erakusteko esan zidan. Ordurako, errotarriak eta harrobiak ageri zireneko zenbait eremu nerabiltzan buruan, Berdiotz ingurutik (Orozko) Berretin ingururaino (Zuia). Alabaina, nire eremurik gogokoena Oderiaga eta Arralde dira.

Hala, lanean hasi ginen eta egunik egun leku ezagunak eta ezezagunak arakatu genituen, eta nik ere ikasi nituen azkenean. Inguru xarmangarrietan zehar ibili gara, arginen eta ikazkinen jardura orain dela 100 urtetik gorako alditik honako desagertu deneko inguruetan. Den-denak aldatu gabe dirau leku horietan, ipuin batetik ateratakoak bailiran, basoa zaintzen duten «iratxoak» bertan biziko lirakeen bezala.

Hor ere, isilik, haitz horien ondoan, harrizko etxoletan, gure arbasoetako batzuen «arinak» bizi dira, artzainenak, ehiztarienak, ikazkineak, arginenak, gurdizainenak... Tarte onak eta tarte txarrak eman zituzten horietan, baina gauza ziurra da hilabeteak eta hilabeteak eman behar izan zituztela argitik argita bizi-raun ahal izateko.

Egun batzuk luzetsi zitzaizkigun, baina laburregi iruditu zitzaizkigun, harriei eta beste elementu batzuen inguruko eztabaida etengabeetan murgilduta. Errotarri lotutako toponimiari esker, idatzita ez dagoenari buruz eztabaidatzea izan dugu. Javiri, batzuetan, zailtasunen bat ezarri diot: eremu jakinen bat ikustera joan, eta bidean, dena delako lekura

Por circunstancias de la vida profesional me he movido cerca de ambientes «culturales» y he colaborado en revistas y libros con temas variados, siendo un tema el de los molinos de la zona de Altube-Baranbio (Labayru, 1990).

En la Asociación Aztarna, con Félix Murga hace unos 30 años, anduvimos haciendo alguna cosa sobre los canteros y piedras de molino, que luego se publicó en Aztarna de una forma humilde.

En todos estos años he enseñado a diferentes personas interesadas, piedras, cuevas, túmulos, trincheras... por Gorbeia, de forma que no me cogió de sorpresa cuando hace unos 4 años Javi Castro (Aranzadi) me comentó que le enseñase canteras o restos de piedras de molino. Para esas fechas yo ya tenía en la cabeza varias zonas de piedras de molino y canteras, desde la zona de Berdiotz (Orozko) hasta la zona de Berretin (Zuia), siendo mi zona preferida Oderiaga y Arralde.

De forma que nos pusimos en marcha y un día tras otro fuimos mirando algunas zonas conocidas y otras desconocidas, que yo también aprendía. Hemos recorrido zonas mágicas, por donde la actividad humana de los carboneros y canteros desapareció hace más de 100 años. Donde todo permanece intacto, zonas que parecen parte de un cuento, ahí viven los «duendes» que cuidan el bosque.

Aquí también en silencio junto a esas peñas, en las chabolas de piedra permanecen las «almas» de algunos de nuestros antepasados, pastores, cazadores, carboneros, canteros, carreteros... que pasaron ratos buenos y ratos malos, que tuvieron que trabajar meses y meses de sol a sol para poder sobrevivir.

Algunos días fueron largos en horas pero se nos hicieron cortos, las discusiones y la diferente versión sobre las piedras u otros elementos era una constante. Con la toponimia relacionada con piedras de molino podíamos discutir lo que no está escrito. A Javi a veces se lo ponía un poco difícil, íbamos a ver una zona y en el camino, antes de llegar, a mí me gustaba hacerle pasar algún filtro y Javi encajaba bien ese «peaje».

iritsi aurretik, iragazkiren bat proposatu diot, baina Javik onez hartu dizkit «bidesari» horiek guztiak.

Egun batean, ogitartekoa jaten ari ginela, nik denetik neraman, letxuga izan ezik, eta Javiren jatekoa, ia osorik, letxuga zen. Honela esan zidan: «Luiso, jaten duguna gara», eta egun horretatik aurrera letxuga gehiago jaten dut. Hilabeteak aurrera egin ahala, joaten ginen herri bakoitzean, Javik beste informatzailearen bat edo batzuk jasotzen zituen agendan eta, denboraren poderioz, informatzaileen sarea ehundu zuen Gorbeian.

Javik informatzailea eta haren ezagutza baliosten ditu proiektuan, eta informatzaileak badaki proiektu horren zati dela; horregatik, errotarrien kokapenari buruzko informazioa olatu erraldoi baten modukoa da.

Proiektuak informazio zabala eman du, eta horri esker, hainbat errotarri eta harrobiri baliola emango zaie Gorbeia natura ingurunea hobeto ezagutzeko. Nire aldetik, esperientzia polita izan da, ikasi egin dut, egindakoak indarberitu egin nau. «Nire sokako» jendea ezagutu dut eta gozamen handia izan da.

.....
Luiso Lopez Martínez (Baranbio, 1961)
Aztarna

Un día estábamos comiendo el bocadillo y yo llevaba de todo menos lechuga y el llevaba casi todo lechuga y me dijo: «Luiso, somos lo que comemos», desde ese día como algo más de lechuga. Los meses iban pasando y a cada localidad que nos acercábamos Javi ponía en su agenda a otro informante o a varios, con el tiempo se hizo con una red de informantes en el Gorbeia.

Javi en su proyecto pone en valor al informante y su conocimiento, y a éste le consta que es parte de ese proyecto, lo cual hace que la información de la ubicación de piedras de molino sea como una ola gigantesca.

Ha sido un proyecto que ha aportado bastante información, con infinidad de piedras y canteras que se van a poner en valor para el mejor conocimiento del medio natural en Gorbeia. Por mi parte, ha sido una bonita experiencia, he aprendido, me ha enriquecido, he conocido a gente de «mi aire» y ha sido una gozada!

Errotarri harrobiak ahanzturatik libratzeko proiektua Un proyecto para rescatar del olvido las canteras moleras

Inork ez zukeen pentsatuko 2010. urtean Gorbeian zer aurkituko nuen: alde batetik, arrokkak, arroka ugari, eta bestetik, jendea, berehalakoan ondo moldatu nintzeneko jendea.

Egia esatera, arrokak aurkitzera joan nintzen, hobeto esanda, errotarri harginen tresnek landutako harriak aurkitzera, apenas ezagutzen den eta dagoeneko galduta dagoen mendiko lanbide horren aztarna gisa. Maisu onak izan nituen, eta bide zaharretatik ibiltzen irakatsi zidaten, harrobi bakoitzaren bihotzera iristen lagundu eta harrian utzitako markak ezagutzen lagundu zidaten, hori ikasi egiten baita. Gero, mendiak berak ezarri zizkidan jarraitu beharreko urratsak. Mendia sentitu behar da, han fosilizatuta geratu ziren oihartzun horiek antzematen jakiteko, astiro joanda, zaratarik egin gabe «jainko-jainkosak bizi izan ziren tokietan» eragozpenik ez sorrarazteko.

Gorbeia bezalako eremu zabal-zabala zeharkatzea oso zaila zen, eta amore emateko zorrian egon nintzen, mendian bakarrik ibiltzea biderazina baitzen. Ia-ia ez neukan daturik edo zantzurik nondik hasi erabakitzeke. Lekuak ez zuen ni oinarritzeko aurretiazko ikerketarik, eta banekien lehenago inor ez dela ausartu halakorik egiten. Zeanurin, ibilbide batzuk egin nituen eta ez nuen ezer aurkitu, Zigoitiak ere ez zidan emaitzarik ekarri. Beraz, Gorbeia aldi batean bazter utzi eta Gorbeian bezainbeste haitz edo gehiago dituzten beste eskualde batzuetan ikertzen jarraitu nuen, emaitza hobek aterata. Ez nuen ia ezer ezagutzen Orozkoko mendiez, ezta Zuiakoez ere, eta ez nintzen ausartzen inguru haietatik barrena ni bakarrik ibiltzen. Gorbeiarri begirune handia izan diot beti, eta gogoan izan dut oso antropizatuta egon dela, jakina denez, artzaintza eta ikazkintza etengabe geratu direlako han.

Nadie hubiera pensado en 2010 lo que me iba a encontrar en Gorbeia, por un lado rocas, muchas rocas y por otro lado gente, bastante gente con la que enseguida congenié.

Lo de localizar rocas era a lo que iba, rocas tocadas por herramientas de canteros moleros, un oficio apenas conocido y ya desaparecido en la montaña. Tuve buenos maestros que me enseñaron a recorrer los viejos caminos para poder llegar al corazón de cada cantera y reconocer las marcas dejadas en la piedra, que esto se aprende. Luego la propia montaña me marcó las pautas a seguir. Hay que sentir la montaña para saber captar esos ecos que allí quedaron fosilizados, yendo despacio, sin hacer ruido para no interferir allí donde «vivieron los dioses».

Recorrer un ámbito tan grande como Gorbeia era muy difícil y estuve a punto de tirar la toalla, porque andar en soledad por el monte era un proyecto inabordable. Prácticamente no tenía ningún dato ni referencia por dónde empezar. El lugar carecía de investigaciones previas en las que apoyarme y sabía que nadie antes se había atrevido con ello. Recorrí algunos caminos por Zeanuri y no localicé nada, tampoco Zigoitia me aportó algo positivo, así que me retiré para recapitular y proseguí investigando por otras comarcas con tanta o más roca que Gorbeia, con buenos resultados. No conocía prácticamente nada de la montaña de Orozko, ni de Zuia y no me atrevía a andar yo solo por aquellos parajes. Al Gorbeia siempre le he tenido mucho respeto y tenía presente que había estado muy antropizado, por el uso continuado y ya conocido como pastoril y para la elaboración de carbón.

Después de catalogar una veintena de localizaciones de moleras por otros ámbitos, tomé

Beste esparru batzuetan, hogei bat errotarri harrobi katalogatu ondoren, amasa hartu eta pentsatu nuen Gorbeia ikerketari berriro lotzea, gehienez ere, hamar bat harrobi aurkitzeko xedez. Bertakoen laguntza adiskidetsua nireganatzeko zortea izan nuen, eta laguntza hori ez da unekoa edo garrantzizgabea gertatu, baizik eta oinarri sendokoa, mendiak eta kulturak batzen gaituztelako. Lehenik, Iñaki García Uribe ezagutu nuen, gero Luiso Lopez eta, azkenik, Esteban Etxebarria, hurrenkera horretan, eta hirurekin batera goitik behera ibili naiz Gorbeia, mendia bazter guztietatik arakatzu, haren sekretuak erakuts diezazkidan, eta hala izan da, sekretuak erakustea lortu dugulako. Hori guztia, gainera, parke naturaleko kudeatzaileek erraztu digute, Errotarri Gorbeian proiektuaren ikerketari buruz egin ditzkidan eskaera guztiak baimendu baitituzte.

Luiso dugu errotarri harrobiei buruzko datu gehien zituena, urte asko eman baititu mendira igotzen, eta nahikoa ondo ezagutzen zuen gaia. Hirurek berdin-berdin lagundu didate ia ezere truke, eta horregatik dira nire txaloak eta begirune osoa merezi dutenak, landa lanetan erakutsi duten adore eta kemenagatik, eta beraiekin, gainera, mendigune zoragarri horretako beste eremu historiko eta etnografiko batzuk bisitatu, haiei buruz ikasi eta eremuez gozatu dudalako. Ezin da argiago esan: Gorbeia lantegi handia egon zen, non gure arbasoek errotarriak ere landu zituzten. Orain, lanbide hori argitara ekarri dugu eta elikagaigintzan behar-beharrezkoa zela aitortzen dugu.

Iñakik, Luisok eta Estebanek languntzaille berri askorekin jarri ninduten harremanetan eta, denon artean, pixkanaka-pixkanaka sarea ehundu genuen, eta gero eta harrobi gehiago aurkitu genituen, lanbide honen historiaren zakuak gainezka egiteraino. Norbaitek apustua eginez gero, galdu egingo zuen. Atzerantz begiratzen badut, harkaitzak eta lagunak ikusten ditut, Gorbeian errotarriak aurkitu nahian; bestetik, gogoan itsatsita geratu zaizkit atsedean hartzea tokatzen zenean antolatzen genituen errotarri otorduak, nire irudirik gustukoena horixe dela. Lan hau ez zen gauzatuko Errotarri Gorbeian proiektuan parte hartu duten horien guztien laguntzarik gabe eta, beraz, biziki eskertzen diet eta guztiei eskaintzen diet lan hau,

aire y pensé en retomar la investigación en Gorbeia para intentar obtener, como mucho, una decena de canteras. Tuve la suerte de conseguir la amable ayuda de algunos lugareños, y esa ayuda no se quedó en una cosa puntual o anecdótica, sino que se forjó con buen material, porque la montaña y la cultura unen. Primero conocí a Iñaki García Uribe, después a Luiso López y finalmente a Esteban Etxebarria, en este orden, y con los tres he dado un repaso a Gorbeia, escudriñando la montaña por todos los rincones, para que nos mostrara sus secretos y así ha sido, porque lo hemos conseguido. Todo ello además facilitado por los gestores del Parque Natural, que han autorizado cuantas peticiones les he cursado sobre la investigación del proyecto Errotarri Gorbeian.

Luiso es quien más datos tenía sobre las canteras moleras porque llevaba muchos años subiendo al monte y el asunto lo conocía bastante bien. Los tres me han ayudado por igual a cambio de casi nada, por ello son merecedores de mi aplauso y respeto, por toda la energía y tesón que han puesto en las labores de campo y porque con ellos he visitado, aprendido y disfrutado además sobre otros ámbitos históricos y etnográficos de esa mágica montaña. No puede decirse más claro: en Gorbeia existió un gran taller donde nuestros antepasados también labraron muelas de molino, oficio que ahora hemos destapado y reconocemos como necesario para la alimentación.

Entre Iñaki, Luiso y Esteban, ellos a su vez me pusieron en contacto con numerosos nuevos amigos colaboradores y poco a poco fuimos tejiendo una red que fue sumando más y más canteras, hasta desbordar el cajón de la historia de este oficio. Cualquiera que habría hecho una apuesta la habría perdido. Si miro hacia atrás veo rocas y amigos localizando muelas en Gorbeia, también han quedado grabados los almuerzos moleros que organizábamos cuando tocaba descansar, esa es mi imagen favorita. Este trabajo no habría sido posible sin toda esa gente que ha colaborado en mi proyecto Errotarri Gorbeian, por lo que les quedo sumamente agradecido y a todos ellos dedico esta obra, con una mención especial al joven zuiano Isidro Velasco por lo que hemos aprendido con él, al que le deseo triunfe en

bereziki, Isidro Velasco gazte zuiarrari, beraren eskutik ikasi dugun guztiagatik; aukeratu duen lanbidean arrakasta izatea opa diot. Hala berean, esker ona agertu behar diet Arabako Foru Aldundiko agintariei, bai eta Sarriako parkeko teknikariei, basozainei eta zaintzaileei ere, ikerketa garatzeko egin behar izan ditudan kudeaketa lan guztietan lagundu didatelako. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet liburu hau maketatu eta inprimatzeko aukera eman didatenei. Guztioi, eskerrik asko beti hor ego-teagatik.

el oficio que ha elegido. No debo olvidar un agradecimiento formal a las autoridades de la Diputación Foral alavesa, también a los técnicos, guardas forestales y vigilantes del parque de Sarria por haberme facilitado y ayudado en cuantas gestiones he necesitado realizar para el grueso de la investigación. Así mismo agradezco la labor técnica de quienes han posibilitado la maquetación e impresión de este libro. A todas y a todos, gracias por vuestra amabilidad al estar siempre ahí.

.....
Javier Castro Montoya (Donostia/San Sebastián, 1953)
 Aranzadi Z.E.



“Nire Harri Koxkorra”: Errotarri harrobien erro geologikoa “Menos da una piedra”: La raíz geológica de las canteras moleras

Ezer gutxi erants niezaioke nik lau egileen kontakizunari eta haien kolaboratzaile guztien urtetako lanari. Gorbeia egindako irteera pare batean laguntzaile izan nintzen (iparraldeko eta hegoaldeko isurialdeetan egon ginen), besterik gabe, Gorbeiak gure aurrean zabaltzen zuen paisaia geologikoa edo “geopaisaia” irakurtzeari buruzko zenbait ohar eta eskemarekin. Baita 2018an Itzina eta Gorbeia Geari buruzko hitzaldiak antolatu genituenan ere, nire izen-kide Iñaki García Uriberekin. Beraz, EEEn 1:25.000 kartografia geologikoaren egile-kide naizen aldetik, zona horretan eta argitaratutako 72 orrien ia erdietan izan dudana landa esperientziak soilik “egiten nau kofradiko”. Eta, pozgarria da “kofradia honen” kide izatea, Europa mailan berebiziko garrantzia erakutsi duen ikerketa etnografikoko adar berri baten bataioaren edo inaugurazioaren aurrean baikaude. Zorionak egileei egindako lan bikainagatik eta emaitza ikusgarriengatik.

Poco podría yo añadir al relato de los 4 autores y al trabajo de todos sus colaboradores durante años. Simplemente contribuí como acompañante en un par de salidas a Gorbeia, vertientes N y S, con algunos apuntes y esquemas sobre la «lectura» del paisaje geológico o «geopaisaje» que el Gorbeia desplegaba ante nosotros. Igualmente, en las conferencias sobre la Gea de Itzina y Gorbeia que organizamos con mi tocayo Iñaki García Uribe en 2018. Así que tan sólo mi experiencia de campo como coautor de la cartografía geológica 1:25.000 del EVE, tanto en esa zona como en casi la mitad de las 72 hojas publicadas, me da «vela en este entierro» de las canteras moleras. Y por supuesto, que la frase hecha no nos confunda, puesto que lejos del entierro, estamos ante el bautizo o inauguración de una nueva rama de investigación etnográfica que ha demostrado una importancia capital a nivel europeo. Enhorabuena a los autores por su gran trabajo y por los espectaculares resultados.

.....
Iñaki García Pascual (Astorga, 1958)
 Geólogo y geodivulgador, Aranzadi Z.E.

Hitzaurrea

Prólogo

Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Saileko bi kidek eskatu didate hitz batzuk idazteko Gorbeia mendigunearen bi isurialdeetako harrobi eta ehotzeko harrien inguruan aspalditik egiten ari diren ikerketari buruz.

Egia esan, erronka txiki bat da, izan ere, iker-tzen daramadan urteetan ez dut errotarrien alderdi horretan erreparatu. Nik, duela berrogei urte pasatxo, lan txiki bat egin nuen Aurman enpresak eskatuta, “Notas sobre el pastoreo en Gorbea” izenburupean. Mendiko artzaintzaren azterketa izan zen nire ikerketaren esparrua. Dirudenez, beste aditu batzuek ere ez zieten erreparatu ondare elementu horiei, oso kasu gutxitan izan ezik.

Zuia haraneko zenbait herritako erretore Jose Iturratek lan etnografiko bat argitaratu zuen Kobie aldizkarian. Bertan, plano bat eman zuen errota harria zuten docena erdi harrobirekin. Geroago, Javi Castro, Iñaki García Uribe lagunduta (Aranzadiko kideak biak) mendigunearen bi aldeak orrazten hasi ziren, Zigoitiko Luiso López de Baranbio eta Esteban Etxebarriaren oharren laguntzarekin, lursaila ondo ezagutzen baituzten. Prosoekzio, dokumentazio, argazki eta artxibo lan hori 2012 eta 2020 bitartean egin zuten. Landa lana egiteko irteerak hilean bitan egin ziren. Proiektu honetarako egindako landa lan ikaragarri horren ondorioz, gutxienez 147 harrobi aurkitu dituzte: guztira, 603 errotarri. Mendigunearen iparralde, Bizkaiko Orozkoko eta Arratiako haranak, kareharritsuagoa da, eta, ondorioz, hegoaldeko isurialdean baino harrobi gutxiago aurkitu zituzten. Hegoaldeko isurialdeak Zigoitiko Murua eta Manurga eremua eta Zuia haraneko Sarria eta inguruko beste herri batzuk hartzen ditu.

Dos miembros del Departamento de Etnografía de la Sociedad de Ciencias Aranzadi me han pedido que les escriba unas letras sobre la investigación que llevan a cabo desde hace años, en ambas vertientes del macizo de Gorbea de las canteras y piedras de molturar que existen.

La verdad es que se trata de un pequeño reto, habida cuenta que a lo largo de los años que llevo investigando no he reparado en esa faceta de las piedras de molino. Yo por mi parte hace algo más de cuarenta años realicé un pequeño trabajo, por encargo de la empresa Aurman, que se titulaba «Notas sobre el pastoreo en Gorbea». El estudio del pastoreo de montaña es el campo de mi investigación. Parece ser, que otros estudiosos, tampoco habían reparado en estos elementos patrimoniales, salvo en contadísimas ocasiones.

José Iturrate, párroco de algunos pueblos del valle de Zuia, publicó en la revista Kobie un trabajo etnográfico en el que aportaba un plano en donde se situaban media docena de canteras con piedra de molino. Javi Castro más tarde y ayudado por Iñaki García Uribe, miembros de Aranzadi y otros colaboradores como Luiso López de Baranbio y Esteban Etxebarria de Zigoitia que les indicaron, como buenos conocedores del terreno y comenzaron a «peinar» ambas vertientes del macizo. Este trabajo de prospección, documentación, fotografiado y archivo lo llevaron a cabo entre 2012 y el año 2020. La frecuencia de las salidas para hacer trabajo de campo ha sido de dos veces por mes. Como resultado de este ingente trabajo de campo para este proyecto han localizado al menos 147 canteras con un total de 603 muelas de molino. Siendo la parte norte del macizo más caliza, valles de Orozko y Arratia, en Bizkaia, los autores

Antzinako “mendiko tailer” horiek aurkitzeko lanak egin bitartean, beste ondare elementu batzuk ere aurkitu dituzte, horietako asko ezezagunak. Mendian gaztaina pilak gordetzeko lehorreko horma zirkuluz ari naiz, inguru horretan “kirikiñausi” izenez ezagutzen direnak. Esparru horiek orain dela gutxira arte erabili izan dira bildutako gaztainak babesteko eta txerriek edo basurdeek jan ez zitzaten. “Morkotza” jausitakoan, baserrira jaisten zituzten jateko. Era berean, harrobi batzuk aurkitu dituzte, non langileek, Garai batean, hilobietako laudak eta lauzak egiten baitzituzten. Gainera, galtzada harrien tailerrak ere aurkitu dituzte, antzinako majaden hondakin batzuk txabolen aurriekin, erabat hondatuta zegoen errota zahar bat eta ikazkinen etxolen hondakinak.

Aipatzen ari naizen hau guztia, irakurle maitea, ahalegin handiz egiten da, zelaian zehar ibiliz, bidea irekiz txilardi, sasi, iratze, harritzar eta adar erorien artean. Azken batean, lan sistematiko bat eginez, erliebea eta paisaia “irakurriz”, “egurrezko betaurrekoak” etxean utzita, ikerketaz eta mendiaz ikusi eta gozatu ahal izateko.

Errota harriak hareharri kuartzitikoak dira, Behe Kretazeoak, eta horien neurriek aukera zabala hartzen dute, 45 cm-tik hasi eta 170 cm arte, 20 cm inguruko batez besteko lodierarekin.

Azken lana harrobietako fitxetan antolatuta dago. Fitxa horietan, toponimia aberastasuna, kokapena, deskribapena eta katalogatutako elementuen argazkia jasotzen dira.

Nire ustez, monografia horrek Gorbeia beste alderdi antropiko batzuei buruzko bibliografia zabaltzen lagunduko du, eta horrek gehigarri bat ematen dio Parke Natural izendatu zenetik 25 urte igaro direla ospatzeari.

localizaron menor número de canteras que en la vertiente sur. Esta, comprendiendo la zona de Murua y Manurga en Zigoitia y Sarria y otros pueblos aledaños en el valle de Zuia.

Haciendo la labor de localización de estos antiguos «talleres de montaña» también han localizado otra serie de elementos patrimoniales, que muchos de los cuales eran inéditos. Me refiero a los círculos de paredes en seco para guardar en el monte acopios de castañas, que en esta zona se conocen con el nombre de «kirikiñausi» y en castellano ericeras. Estos recintos se han venido utilizando hasta tiempos recientes para proteger las castañas recogidas y evitar que cerdos o jabalíes se las comieran, antes de que desprendida la «morkotza» se bajase al caserío para su consumo humano. Asimismo localizaron canteras en donde los operarios labraban, en otro tiempo, laudas y losas sepulcrales, talleres de adoquines y algunos restos de antiguas majadas con las ruinas de las «txabolas» así como un viejo molino, totalmente arruinado y restos de cabañas de carboneros.

Todo esto que estoy enumerando, querido lector se realiza con mucho esfuerzo, andando campo a través, abriéndose paso entre brezales, zarzas, helechos, pedregales y ramas caídas. En definitiva haciendo un trabajo sistemático, «leyendo» el relieve y el paisaje para como suelo decir dejando en casa «las gafas de madera», para poder ver y disfrutar de la investigación y de la montaña.

Las piedras de molino son de arenisca cuarcítica, del Cretácico inferior y sus dimensiones abarcan un amplio abanico desde los 45 cm hasta las enormes de cerca 170 cm, con un grosor medio de aproximadamente 20 cm.

El trabajo final está organizado en fichas de las canteras, en donde se aporta riqueza toponímica, localización, descripción y fotografía de los elementos catalogados.

Creo que esta monografía contribuirá a ampliar la bibliografía sobre otros aspectos antrópicos del Gorbeia y que añaden un plus a la conmemoración de los 25 años de la declaración como Parque Natural.

.....

Fermín Leizaola (Director del Dpto. de Etnografía de Aranzadi Z.E.)

Donostia, a 28 de septiembre de 2021

Sarrera

Introducción

